

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak hautaturiko 5 proiektuetako 3 lideratzen ditu

Aeronautika, fabrikazio aurreratua, osasuna/bio-osasuna, nekazaritza eta nekazaritzako elikagaigintzaren arloko proiektuek 300.000 euro lortu dituzte, guztira

Osteguna, 2018.eko abenduak 20

Nafarroak 2018ko Akitania Berria-Euskadi-Nafarroako Proiektu Deialdiaren bigarren txandarako hautatu diren 5 proiektuetatik 3 lideratuko ditu, 300.000 euroko guztizko laguntza tarteko. Aurtengo azken deialdi honetan hautatu diren proiektuak

esparru hauekin lotuta daude: aeronautika eta fabrikazio aurreratua, osasuna/bio-osasuna eta nekazaritza eta nekazaritzako elikagaigintza; den-denak, 2014-2020ko Plan Estrategian finkaturiko lehentasunak.

Honela, Euroeskualdeak euroeskualde mailako lankidetzaren estrategikoak finantzatu nahi ditu, sektore horietako eragile desberdinei elkar aurkitu, elkarrekin bat egin, elkarren osagarritasunak bilatu eta euroeskualde mailako halakoxe "masa kritikoa" lortzea ahalbidetzeko eta, horren laguntzaz, sinergiak sortu eta elkarren artean erronka berriei aurre egiteko: ikerketa, berrikuntza zein nazioartekotze proiektuak, europar deialdiak prestatzeko lanak...

Nafar lidergoa

[Hautaturiko proiektu guztiek](#) nafar eragileak ditu partaide, eta horietako 3 Nafarroako Unibertsitate Publikoak, CIMAK eta Naitecek lideratuko dituzte.

NUP buru duen "Toki-Pommes" proiektuko bazkideen artean, INTIA, Neiker eta Conservatoire Végétal Regional d'Aquitaine deritzona nabarmen daitezke, 44.243,39 euroko laguntza jaso duelarik. Euroeskualdeko eremuetara egokitutako sagarrondoaren barietate autoktonoak identifikatu eta aukeratzea da proiektu honen helburua, Euroeskualdeko frutikulturaren garapen iraunkorrerako oinarriak finkatzen lagunduko duten produktu espezifikoaren garapena sustatzeko xedez.

Bio-osasunaren esparruan, Ikerketa Mediko Aplikatuaren Zentroak (CIMA) "Cardioren" proiektua lideratuko du, Viscofam SA, Université de Bordeaux eta Urtasun bazkideekin batera. 71.452,50 euroko dirulaguntza



Euroeskualdearen deialdiaren irudia.

tarteko, Cardioreg proiektuak, urralde Lankidetzarako Europar Elkartek (AECT) interes estrategikotzat jo duen soluzioa eskainiko dio gaixotasun kardiobaskularren egungo tratamendu paradigmari: zelulak birsortzeko terapia garatzea miokardioko infartua izan duten pazienteentzat, betiere kostu txikiagoko medikuntza eraginkorragoa lortzeko asmoz.

Sektore aeroespazialean eta fabrikazio aurreratuan, [Naitec](#)-ek “**FCOMP**” deritzon proiektua lideratuko du, industria aeroespazialari prestazio handiagoak dituzten osagai arinagoak eta integratuagoak eskaintzeko asmoz. Berrikuntza hauek, hiru eskualdeek balio-kate osoan izandako alde zurreko esperientzia osagarriak dituzte oinarri. Nafarroak ESTIA, Microlan eta HEGANekin batera garatuko du proiektu hau, 71.452,50 euroko dirulaguntza tarteko.

Azkenik, **Darwin** eta **Danegaz** proiektuak nafar operadoreak izango ditu partaide lankidetzaz bidezko robotika kognitibo mugikorra ikertu eta Jatorri Deitura Babestuari (JDB) atxikita landutako Euroeskualdeko leku desberdinetako gazten inguruko eragileen sarea sortzeko oinarriak finkatzeko. Lehendabizikoan, TEDCAS Medical Systems-ek parte hartuko du, eta bigarreanean, Erronkari Jatorri Deitura babestuak.